

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
kudeatzen dituen diru-laguntza deialdien
ebaluazioa eta hobekuntzarako
proposamenak**

EBPN DEIALDIA

**Egileak:
Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra
EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia
Saila**

Donostian, 2012ko apirilean

AURKIBIDEA

Sarrera	4.orr
1.- Helburuak	5.orr
2.- Testuinguru teorikoa	6.orr
2.1.-1979.Urteko Autonomi Estatutua	6.orr
2.2.-10/1982 Legea, Euskararen Normalizaziorako Oinarrizkoa	6.orr
2.3.-1999.Urteko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia	6.orr
2.4.- XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikaren Oinarriak ...	8.orr
2.5.- EBPN deialdia: misioa	8.orr
2.6.-EBPN deialdiak lagundutako jarduerak	9.orr
2.7.- Inpaktua: Hizkuntza Biziaren Euskarriak eredia	10.orr
2.8.- EFQM Kalitate Osoa eta Bikaintasuna eredia	11.orr
3.- Metodologia	14.orr
3.1.- Galdeketen bidez jasotako informazioa	14.orr
4.- Lagina	17.orr
5.- Emaitzak	18.orr
5.1.-Erakunde eskatzaileengandik jasotako informazioa	19.orr
5.2.-Ekintzetako parte-hartzaileengandik jasotako informazioa	47.orr
5.3.-Erakunde eskatzaileek deialdiaz egindako balorazioa	74.orr
5.4.-HPS-ko teknikariengandik jasotako informazioa	78.orr
6.- EBPN sektorearen egoera: sintesia	80.orr
7.- Eragindako inpaktuaren estimazioa	86.orr
7.1.-EBPN deialdiaren helburuen lorpena	88.orr
7.2.-Parte-hartzaileengan eragindako inpaktua	94.orr
8.- Azken balorazioa	101.orr
9.- Hobekuntzarako proposamenak	105.orr
9.1.-EBPN deialdia: lagundu beharrekoa	105.orr
9.2.-EBPN deialdiak saritu beharrekoa	105.orr
9.3.-EBPN deialdiaren prozesua	106.orr
9.4.-Ekintzen ezaugarriak	106.orr
9.5.-Erakunde eskatzaileek landu edo hobetu beharrekoa	107.orr
9.6.-Erakunde eskatzaileei zuzendutako auto-ebaluaziorako tresna	108.orr
9.7.-Ekintzetako parte-hartzaileei zuzendutako tresna	109.orr
9.8.-Auditoria-sistema	109.orr

10.- Eranskinak	110.orr
A Eranskina	111.orr
B Eranskina	115.orr
C Eranskina	119.orr
D Eranskina	123.orr
E Eranskina	126.orr
Bibliografia eta erreferentziak	129.orr

SARRERA

1979.urtean Autonomi Estatutuak Euskara Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizial bezala aitortu zuen, eta euskal herritarrei euskaraz bizitzeko eskubidea aitortu zitzaien. Ondoren, 10/1982 Legeak, Euskararen Normalizaziorako Oinarrizkoak, hizkuntza politikei bidea ireki zien. Ordutik, euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko hainbat neurri eta ekimen eraman dira aurrera.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren¹ bitartez, euskararen erabileraren sustatze eta normalizaziorako hainbat ekintza burutzen ditu, horien artean, arlo eta esparru desberdinetan euskararen presentzia bermatzera eta euskararen erabilera sustatzera zuzendutako diru-laguntza deialdiak daudelarik. Deialdi hauek bost dira: IKT, Euskalgintza, Hedabideak, LanHitz eta EBPN.

Lan honetan, EBPN deialdian zentratuko gara. Deialdi honek, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko edo entitateotako administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak onartzeko diru-laguntza ematen du.

Gure lanarekin, EBPN-ren sektoreari hurbilketa egin nahi izan diogu. EFQM Kalitate eta Bikaintasun eredua oinarri hartuta, deialdiaren argitaratzetik, euskara-planetan jasotako ekintza desberdinak garatzen diren arte dauden prozesu eta alderdi guztiak aztertu dira. Honetaz aparte, garatutako euskara-planetako ekintzek euskararen erabileran eragindako inpaktua ere estimatu dugu. Hau guztirako, EBPN-n diharduten hiru agente nagusien, hots, HPS-ko teknikarien, erakunde edo udal eskatzaileen, eta herritarren edo parte-hartzaileen iritzia jaso dugu.

Jasotako informazio guztiarekin, EBPN deialdiaren balorazioa egiteaz gain, erakunde edo udal eskatzaileei eta ekintzetako parte-hartzaileei zuzendutako tresna bat eratu dugu, bi azpi-tresnatan banatua (erakundeei zuzendutakoa, eta ekintzetako parte-hartzaileei zuzendutakoa). Tresna hau, bai auto-ebaluaziorako eta bai inpaktuaren estimaziorako baliagarria izango zaie erakunde hauei, beti ere, azken helburua, euskararen sustatze eta normalizatze aldera emaitza ahalik eta onenak lortzea izango delarik.

Lan honetan, EFQM eredua hartuta, EBPN sektoreari hurbilketa egin nahi izan dugu. Erakunde eskatzaileengandik, herritar edo parte-hartzaileengandik, eta HPS-ko teknikariengandik jasotako informaziotik abiatuta, alde batetik, euskararen erabileran eragindako inpaktua estimatu nahi izan dugu, eta bestetik, inpaktu hau hobetze aldera, erakunde eskatzaileek auto-ebaluazioa egin ahal izateko tresna sortu dugu.

¹ Aurrerantzean, "HPS" laburdura erabiliko da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari erreferentzia egiteko.

1.- HELBURUAK

Erakunde eskatzaileek euren auto-ebaluazioa egin ahal izateko eta euren inpaktua estimatzeko erabilgarria izango den tresna eratzea da enkargua.

Tresna honen bidez, alde batetik, PDCA² zikloan oinarrituta, haien hasierako helburuetatik abiatuta, aurrera eramandako ekintzak, eta azken ondorio edo emaitzak ebaluatu ahaliko dituzte, eta bestetik, euskararen erabileran eragindako inpaktua estimatu ahal izango dute.

Tresna horren eraketarako, ezinbestekoa izango da EBPN deialdiaren sektorea ezagutzea. Garatutako ekintza edo zerbitzuei buruzko informazioa jaso beharko da, deialdiaren balorazioa egin beharko da, eta euskararen erabileran eragindako inpaktua estimatu beharko da.

Hortaz, lanaren helburuak hauek dira:

- 1) EBPN sektorea bere osotasunean ezagutzea,
- 2) Aurrera eramandako euskara-planek barne hartutako ekintza edo zerbitzuek eragindako inpaktua estimatzea,
- 3) Erakunde eskatzaileei zuzendutako auto-ebaluaziorako eta inpaktuaren estimaziorako tresna eratzea.

² PDCA: Plan Do Check Adjust zikloa da. Erakundeek euren ekintzak planifikatu ondoren, aurrera eramaten dituzte, ondoren emaitzak aztertzen dituzte, eta hobetze aldera egin beharreko aldaketak egiten dituzte. Ondoren zikloari ematen zaio hasiera berriro. Etengabeko hobekuntzarako zikloa da.

2.- TESTUINGURU TEORIKOA

Lan honen testuinguru teorikoa osatu edo ulertzeko, euskara eta honen erabilera sustatzeari lotutako araudi eta plan ofizialak, inpaktuaren kontzeptua (Hizkuntza Biziaren Euskarriak ereduari lotua), eta EFQM Kalitate Osoa- Bikaintasunaren eredua aintzat hartuko ditugu. Atal honetan esanguratsuenak diren alderdiak azalduko ditugu laburki.

2.1.- 1979.urteko Autonomi Estatutua

1979.urtean, Autonomi Estatutuak euskara Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizial bezala aitortu zuen eta euskal hiritarrei euskaraz bizitzeko eskubidea aitortu zitzaien. Ordutik, eskubide hau bermatzeko, eta euskararen erabilera normalizatzeko ekintza desberdinak eraman dira aurrera.

2.2.- 10/1982 Legea, Euskararen Normalizaziorako Oinarrizkoa

10/1982 Legeak, Euskararen Normalizaziorako Oinarrizkoak, bidea ireki zien hizkuntza politikei. Ordutik, euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko neurri desberdinak hartu dira, eta gainera, babes instituzionala eman zaio euskarari.

2.3.- 1999. Urteko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia- EBPN³

1999.an landutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, hiru helburu nagusi zituen: euskararen normalizazioaren bidean helburuak zehaztea, bai epe laburrera, eta bai epe luzera; aurrekontuak aztertzea eta lehentasunak finkatzea; eta erakunde publikoen arteko koordinazioa hobetzea, euskalgintzan diharduten beste erakunde eta elkarteekin harremana bideratzearekin batera.

Euskararen erabilera eragiten duten faktore nagusiak hiru dira: hizkuntza erabiltzeko gaitasuna, hizkuntza erabiltzeko aukera, eta gizartean hizkuntza horrekiko ageriko onarpena.

EBPN-k, aurreko hiru faktore horiek kontutan hartuz, lan-ildo estrategikoak zehaztu zituen, hiru ardatz definituz:

- 1) Euskararen transmisioa (hezkuntza, helduen alfabetatze eta euskalduntzea, eta familia bidezko transmisioa),

³ *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1999-2009)*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1999. "EBPN" laburdura erabiliko da Plan honi erreferentzia egiteko.

- 2) Erabilera-arlo desberdinak (arlo sozioekonomikoa, administrazioa, aisialdia, kirola, erlijioa), eta
- 3) Euskararen presentzia hedabideetan eta kultura-produkzioan.

Hortaz, EBPN-k proposatuko dituen helburu estrategikoek azken helburu bat izango dute: euskararen erabilera normalizatzerako bidean, honen aldeko ekintzak indartzea, maila pertsonal, sozial eta ofizialean, Euskal Herriko biztanle guztiei euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko.

Normalizazio hori lortzeko, hiru helburu estrategiko zehazten zituen:

- 1) Euskararen transmisioa indartzea: familian, eskolan, eta helduen alfabetatze eta euskalduntzearen bidez.
- 2) Euskararen erabilera soziala areagotzea: euskarazko zerbitzuak eskainiaz, arlo desberdinetan: arlo sozioekonomikoan, administrazioan, kirol arloan, aisialdian, erlijioan, hedabideetan, IKT arloan, ...
- 3) Euskararen kalitatea sustatu eta bermatzea: korpusaren planifikazioa, idatzizko hedabideak, kultur eta literatur ekoizpenak, irratiak, telebista, publizitatea eta kultura barne hartzen dira, hauetan euskararen presentzia bermatu eta handitzeko, eta kulturari eta euskarari lotutako ekoizpenak sustatzeko.

Lan-ildo estrategiko hauek, zuzenean nahiz zeharka, HPS-k kudeatutako deialdi desberdinen bidez lantzen dira, hauetako bakoitza lan-ildo zehatz batzuetan zentratuko delarik.

EBPN deialdiak aurreko helburu guztiak bereak egiten dituen arren, honako hauetan zentratuko da bereziki:

- Euskararen transmisioa: familia bidezko transmisioa indartuz, eta euskalduntze eta prestakuntza sustatuz.
- Euskararen erabilera soziala areagotzea: teknologia berriak, lan-mundua, aisialdia, eta kirol-arloak euskaldunduz,
- Euskararen kalitatea: kultura-eskaintza handituz eta honen kalitatea zainduz.

2.4.- XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikaren Oinarriak. Itun Berritu Baterantz⁴

Dokumentu honetan, hizkuntza-politikan lehenetsi beharreko lan-ildoak zehazten dira, hauek direlarik:

1. Euskararen ezagutza eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskararen arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, belaunaldien arteko transmisioa bermatzea, erreferentzialtasun soziala indartzea, eta euskal hiztunak sortzea.
3. Familia-transmisioa bermatzea.
4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea.
5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan areagotzea eta prestigioa ematea.
7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea.
8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea.
9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, komunikagarritasuna indartuz.
10. Euskara erabiltzeko aukerak bermatzea, bereziki alor publikoan.
11. Euskararen erakargarritasuna lantzea.
12. Euskararen prestigioa handitzea.
13. Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak euskalduntzea.
14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.

2.5.- EBP⁵ deialdia: misioa

Euskararen erabilera normalizatzeko, faktore desberdinetan hainbat ezaugarri eman behar dira: euskararen ezagutza, euskararen transmisioa, gizartearen arlo desberdinetan presentzia izatea, euskararen gizarte-ospe edo prestigioa, testuinguruaren arabera erabilgarritasuna izatea ...

Hortaz, EBP deialdiaren misioa, toki-entitateek garatutako euskara-planen bidez faktore eta arlo desberdinetan eraginez euskararen ezagutza, presentzia eta erabilera sustatzea izango da. Diruz lagundutako toki-entitate edota erakundeek euskara-planak eta hauen barnean islatutako ekintzak garatzearen ondorioz, euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeari gain, 10/1982 Oinarriko Legeak Euskal Herriko biztanleei aitortutako eskubideak bermatzea ere ahalbidetuko da.

⁴ Ikus: XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berri baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena. Euskararen aholku batzordea. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. Gasteiz, 2009.

⁵ Ikus: Agindua, 2010eko ekainaren 3koa, Kulturako sailburuarena, 2010ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2010.eko ekainaren 4koa, 105.alea.

2.6.- EBPN deialdiak lagundutako jarduerak

Deialdiaren bidez bi jarduera-mota laguntzen dira:

- 1) EBPN garatzea
- 2) Euskararen erabilera normalizatzeko planak onartzea

Laguntzen diren ekintzak lau talde desberdinetan banatzen dira:

1. MULTZOA:

EBPN onartuta duten toki-entitateak aurkeztu daitezke.

1.1. Azpimultzoa:

HPS-k EBPN eta XXI. Hasierako Hizkuntza Politikaren Oinarriak, Itun Berritu Baterantz argitalpenean lehenetsitako lan-ildoen artean, udaletarako EBPN-ren eredu berrian jarraian agertzen zehazten diren esparruetara zuzendutako ekintzak laguntzen dira:

- Familia transmisioa
- Euskalduntze-prestakuntza,
- Teknologia berriak,
- Lan-mundua,
- Aisialdia,
- Kirola, eta
- Kultura arloko jarduerak.

1.2. Azpimultzoa:

Hedadura handia eta biztanleria dentsitate txikia dituzten toki-entitateak aurkeztu daitezke:

EBPN-ren jarraipenaz arduratuko den langilearen pertsonal gastuak laguntzen dira, betiere gastu horiek lanpostu-zerrendako pertsonalak eragindakoak ez direnean.

2. MULTZOA: EBPN-ren diseinua lehen aldiz egitea.

3. MULTZOA: Euskararen erabilera normalizatzeko plana lehenengo aldiz egitea.

EBPN aurrera eraman ezin duten toki-entitateak aurkeztu daitezke.

4. MULTZOA:

EBPN onartua duten erakundeak aurkeztu daitezke, baina XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikaren Oinarriak, Itun Berritu baterantz dokumentuaren arabera lehenetsitako esparruen artean toki garbirik ez duten ekintzak aurkeztu daitezke.

2.7.-Inpaktua: Hizkuntza Biziaren Euskarriak eredua

EBPN deialdiaren misioa toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen laguntzea, edota entitateotako administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak onartzen laguntzea denez gero, garatutako euskara-planen bidez aurretik definitutako helburu horiek betetzearen ondorioz, euskararen erabileran eragindako aldaketa izango litzateke inpaktua.

Azken inpaktua estimatzeko, euskara-planak garatu dituzten herrietako biztanleen iritzia jaso beharra dago. Inpaktu hau estimatzerako orduan, Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako Soziolinguistika Eskuliburuan⁶ jasotzen den Hizkuntza Biziaren Euskarriak (Martinez de Luna, 2001) eredua hartu dugu oinarri. Ereduek honek EBPN-k adierazitakoarekin bat egiten du, eta honen arabera, hizkuntza baten erabileran eragiten duten faktore nagusiak hurrengoak dira:

- Norbanako ezaugarriak: hizkuntza-gaitasun erlatibo handia, eta erabilerarako motibazioa.
- Harreman-sareak: aldeko baldintza demo-linguistikoak izatea, eta beste euskaldunekiko harreman-sareak.
- Gizartearen egitura: euskara erabiltzeko ageriko onarpena eta mota guztietako gizarte-talde eta erakundeen aldetik, eta hizkuntzaren gizarte-ospe eta erakargarritasuna.



Irudia: Hizkuntza Biziaren Euskarriak (Martinez de Luna, 2001)

⁶ Zarraga, A. et al (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.

Hortaz, eredu honetatik abiatuta, diruz lagundutako ekintzek eragin beharreko alderdi batzuk finkatu ditugu, eta horiengan eragindako aldaketak estimatu ditugu (ikus Metodologia atala).

2.8.-EFQM Kalitate Osoa eta Bikaintasun eredua⁷

EFQM eredua Kalitate Osoa eta Bikaintasunaren esparruko eredu europarra da. Kudeaketa eta ebaluazio-estrategia dakar berarekin, non erakundea eta inguruko atal guztiak harremanetan diharduten sistema baten antzera irudikatzen diren. Eredu honek bi arlo nagusi desberdintzen ditu: Agenteak eta Emaitzak.

Agenteen barruan, Lidergoa, Politika eta Estrategia, Pertsonak, Aliantza eta Baliabideak, eta Prozesuak aurkitzen dira.

Emaitzen barruan, Emaitzak pertsonengan, Emaitzak bezeroengan, Emaitzak gizartean, eta Emaitzak klabek desberdintzen dira.

Guk definitutako Euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizatzeko Sistemak, irizpideak hauek lirateke:

Politika- Estrategia:

Euskararen erabileraren normalizazio eta sustapenaren inguruko lege eta araudiak, eta erakunde eskatzaileek bere misio eta ikuspegia aurrera eramateko definitutako ekintza guztiak izango dira. Azken helburua, beti ere, parte-hartzaile edo bezeroen beharrei erantzutea izango da, horretarako, politika, plan, helburu eta prozesuak egokituko dituztelarik.

Lidergoa:

Politika eta strategiaren ildotik, pertsonak zuzenduko dituzte, eta baliabideen kudeaketa egingo dute, prozesua bideratuz, beti ere azken helburua lortzeko. EBPN sektorearen kasuan, Administrazioa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, eta toki-entitateak izango lirateke liderrak.

Pertsonak, Baliabideak eta Aliantzak:

Helburuak lortzera bideratutako ekintzak aurrera eraman ahal izateko erabiltzen diren barruko baliabideak eta kanpo-aliantzak dira, hala nola, pertsonak, dirua, denbora, materialak, beste erakundeekin edo eragileekin ezarritako harremanak, eta abar.

⁷ Ikus: Calidad total: modelo EFQM de Excelencia. Euskalit- Fundación Vasca para la Excelencia, 2006.

Prozesuak:

Prozesuak, ekintza, produktu edo zerbitzuak ekoitzi arte eman beharreko urrats guztien sekuentziak dira. Erakundeak, nola diseinatzeko, kudeatzeko eta hobetzeko dituen bere prozesuak, alde batetik bere politika eta estrategia laguntzeko, eta bestetik bere bezero, parte-hartzaile eta intereseko taldeen beharrak asetzeko. Prozesua, ekintza desberdinen sekuentzia da, planifikatutako eta bilatutako emaitza ekoizteko helburuarekin antolatuta dagoena. Ekintza hauetan, pertsona, material, energia eta baliabide desberdinek parte hartzen dute, era logiko batean antolatuta.

Kasu honetan, prozesua, alde batetik, HPS-k EBPN deialdia formulatzeko, argitaratzeko, ebaluatze, ebatzeko, eta diru-laguntzen esleipena egiteko modua izango da, eta bestetik, erakunde eskatzaileek euskara-plana edota honek barne hartutako ekintzak diseinatzeko, deialdiaren eskakizuna aurkezteko, plana edo ekintzak garatzeko, memoria eta zuriaketa egiteko modua izango da.

Prozesuak emaitzaren izaera eta kalitatea baldintzatzen duenez, etengabe parte-hartzaile, bezero edo herritarren beharretara egokitu beharra dago, hau da, lortu nahi diren emaitzei begira berregokitu behar da etengabe. Beraz, urtez urte sektorearen beharrei egokitzeko ahalmena izan behar du, horretarako, erakunde eskatzaileekin harremana ondo kudeatu behar delarik.

Emaitzak

HPS-k kudeatutako EBPN diru-laguntza deialdiak, zikloaren amaieran, “produktu” bat emango du, kasu honetan toki-erakundeek Planak edota hauek barne hartutako zerbitzu edo ekintzak izango direlarik. Euskara-plan hauek eta hauen bitartez aurrera eramandako ekintza edo zerbitzu desberdinek, beste motatako emaitzak eragingo dituzte, herritarrenganako satisfazioa bezala, eta herritarren hizkuntzaren erabileran eragina izango dute, baina hau inpaktuaren kontzeptutik gertuago dago.

Beraz, EBPN deialdian garatutako euskara-planen arduradunen eta herritarren iritzia jaso behar da, diruz lagundutako toki-entitateek euskararen sustapenaren ildoan eragindako inpaktua estimatu ahal izateko.



Irudia: EFQM Ereduaren irizpideak, EBPN sektoreari egokituta

3.- METODOLOGIA

Behin testuinguru teorikoa ezagututa, EBPN sektorean diharduten hiru agenteei zuzendutako galdesortak eratu dira. Ondoren, erakundeen lagina aukeratu da, eta erakundeekin harremanetan jarri gara galdesortak pasatzeko. Behin informazio hori jasota, ekintza desberdinetan parte hartutako herritarren edo parte-hartzaileen kontaktuak eskuratu ditugu, haiengana jo dugularik. HPS-ko teknikariekin bilera egin da, eta azkenik, jasotako informazio kuantitatibo eta kualitatiboaren azterketa egin da.

Erabilitako galdesortak A, B eta C eranskinetan azaltzen dira.

3.1.-Agente edo informazio-iturriengandik jasotako informazioa

EFQM eredua oinarri hartuta, EBPN sektorea ezagutzeko informazio-iturri bakoitzarengandik datu batzuk eskuratu ditugu. Hau da agente bakoitzarengandik jasotako informazio-mota:

IRIZPIDEAK	INFORMAZIO- ITURRIAK		
	Erakunde Eskatzaileak	Parte-hartzaileak	HPS-ko Teknikariak
Politika-estrategia	✓	✓	✓
Lidergoa	✓	✓	✓
Pertsonak, Baliabide, Aliantzak	✓	✓	✓
Prozesua	✓	✓	✓
Emaitzak	✓	✓	✗
Inpaktua	✓	✓	✗

Taula: Agente edo informazio-iturri bakoitzarengandik jasotako informazioa

Hurrengo taulan, alor bakoitzari dagokionez, informazio-iturri edo agente bakoitzarengandik jasotako informazioa laburtzen da:

	ERAKUNDE ESKATZAILEAK	PARTE- HARTZAILEAK	HPS-KO TEKNIKARIAK
POLITIKA ETA ESTRATEGIA	EBPN deialdia Deialdira aurkeztearen arrazoiak Beharren identifikazioa eta ekintzen aukeraketa Bilatutako helburuak Ekintzen esparrua Populazioa	Ekintzetan parte hartzeko arrazoiak Ekintzetan baloratutakoa	EBPN deialdia
LIDERGOA	HPS-rekin izandako harremana Udal eta eragileen arteko elkarlana	Arduradunekin izandako harremana	Erakunde eskatzaileak Udal era eragileen arteko elkarlana
PERTSONAK, BALIABIDEAK ETA ALIAN TZAK	Deialdiaren finantzaketa Baliabide ekonomikoak	Baliabide materialak Arduradunak	Baliabideak Erakunde arteko elkarlana
PROZESUA	Deialdiaren prozedura Ekintzen izaera eta berritzea Plan eta ekintzei egindako difusioa Difusiorako erabilitako bideak Satisfazioa neurtzeko prozedurak Emaitzak estimatzeko prozedurak	Ekintzen antolamendua Plan eta ekintzei egindako difusioa Planak eta ekintzak ezagutzeko moduak	Deialdiaren prozedura Plan eta ekintzen difusioa Emaitzak estimatzeko prozedurak
EMAITZAK	Ekintzen balioa Parte-hartzaile kopurua Helburuen lorpena	Ekintzen balioa Satisfazioa	-
INPAKTUA	Planen eta ekintzen bidez eragindako inpaktua	Euskararen erabilpenari lotutako alderdietan emandako aldaketak	-

Taula: Agente bakoitzarengandik jasotako informazio-mota

Guk eratutako galdeketen bidez jasotako informazio kuantitatiboa, SPSS 19 programaren bidez aztertu da. Informazio kuantitatibo hori, galdeketetan jasotako informazio kualitatiboarekin osatu da.

4.- LAGINA

Lagina 50 erakundek (udal edo toki-entitate) osatua da, 58 euskara-plan edota ekintza desberdinei buruzko informazioa eman dutelarik. Gainera, diruz lagundutako ekintzetan parte hartutako 103 parte-hartzaile edo herritarren iritzia jaso dugu.

	POPULAZIOA	LAGINA	UNIBERTSOAREN PORTZENTAJEA
ERAKUNDE KOPURUA	144	50	% 34.7
EKINTZA KOPURUA	1592	58	% 3,6
PARTE- HARTZAILE KOPURUA	Ezezaguna	103	Ezezaguna

Taula: Erakunde-kopurua, ekintza-kopurua eta parte-hartzaile kopurua.

5.- EMAITZAK

Aurretik azaldu dugun bezala, EFQM eredua hartu da oinarri EBPN-ren sektorea ezagutzeko. Hortaz, agente bakoitzarengandik jasotako informazioa eredu horren arabera azalduko dugu.

Lehendabizi, erakunde eskatzaileengandik onartu edo garatutako plan eta ekintzei buruz jasotako datu kuantitatiboak eta kualitatiboak aurkeztuko ditugu. Ondoren, parte-hartzaileengandik jasotako informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa aurkeztuko da. Eta azkenik, erakunde eskatzaileek eta HPS-ko teknikariek EBPN deialdiari buruz egindako balorazioak azalduko dira.

5.1.- Erakunde eskatzaileengandik jasotako informazioa

A.- INFORMAZIO KUANTITATIBOA


Ikerketan parte hartu duten erakunde edo toki-entitateen profila

1.- Probintzia

Ikerketan parte hartu duten toki-entitate edo udalak, probintziaren arabera sailkatuta azaltzen dira.

PROBINTZIA	ERAKUNDE-KOPURUA
Araba	% 22
Bizkaia	% 38
Gipuzkoa	% 40
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte hartu duten erakundeak probintziaren arabera sailkatuta




Grafikoa: Parte hartu duten erakundeak probintziaren arabera sailkatuta

2.- Biztanle-kopurua

Ikerketan parte hartu duten erakundeak biztanle-kopuruaren arabera sailkatuta azaltzen dira.

BIZTANLE-KOPURUA	ERAKUNDE- KOPURUA
0-5000 artean	% 54
5000-20000 artean	% 24
20000-50000 artean	% 18
50000tik gora	% 4
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako erakundeak biztanle-kopuruaren arabera sailkatuta




Grafikoa: Ikerketan parte hartutako erakundeak biztanle-kopuruaren arabera sailkatuta

3.- Biztanle euskaldunen proportzioa

Ikerketan parte hartu duten erakundeak biztanle euskaldunen proportzioaren arabera sailkatuta azaltzen dira.

PROPORTZIOA	ERAKUNDE- KOPURUA
% 0-20	% 2
% 20-40	% 28
% 40-60	% 16
% 60-80	% 30
% 80-100	% 16
Ez daki edo ez du erantzun	% 6
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako erakundeak biztanle euskaldunen proportzioaren arabera sailkatuta.




Grafikoa: Ikerketan parte hartutako erakundeak biztanle euskaldunen proportzioaren arabera sailkatuta.

4.- Diru-laguntza eskatutako urte-kopurua

Toki-entitateek diru-laguntza zenbat urtez eskatu duten:

URTEAK	ERAKUNDE- KOPURUA
1 eta 5 artean	% 26
5 eta 10 artean	% 46
10 eta 15 artean	% 12
15etik gora	% 2
Ez daki edo ez du erantzun	% 14
GUZTIRA	% 100

Taula: Diru-laguntza eskatutako urte-kopurua



Grafikoa: Diru-laguntza eskatutako urte-kopurua


Irizpidea: Politika eta Estrategia

5.- Beharren identifikazioa eta ekintzen aukeraketa egiteko modua

Erakundeei, beharren identifikazioa eta garatu beharreko ekintzen aukeraketa egiteko modu nagusiaz galdetu zitzaien.

MODU NAGUSIA	ERAKUNDE- KOPURUA
Diagnosi-planetatik abiatuta	% 16,7
Euskaigintzako eragileekin batera	%25
Teknikariek egindako lanetik abiatuta	% 58,3
GUZTIRA	%100

Taula: Beharren identifikazioa eta ekintzen aukeraketa egiteko modu nagusia




Grafikoa: Beharren identifikazioa eta ekintzen aukeraketa egiteko modu nagusia

6.- Aztertutako ekintzen bidez bilatutako helburuak

Aztertutako ekintzek honako helburuak bilatzen zituzten, orokorrean:

BILATUTAKO HELBURUA	EKINTZA- KOPURUA
Euskarazko harreman-sareak indartzea	% 62,1
Hizkuntza-trebetasunak hobetzea	% 41,4
Familia bidezko transmisioa bultzatzea	% 29,3
Euskal historia edo kultura ezagutaraztea	% 24,1
Euskarazko sormena bultzatzea	% 24,1
Zerbitzu berri bat euskaraz eskaintzea	% 20,7
Euskarazko produktu/zerbitzuen kontsumo/erabilera sustatzea	% 20,4
Helduen alfabetatze eta euskalduntzea	% 15,5
Zerbitzu bat zabaltzea	% 6,9
IKT arloan euskara zabaltzea	% 3,4
Besteak	% 32,8

Taula: Aztertutako ekintzek bilatutako helburu orokorrak




Grafikoa: Aztertutako ekintzek bilatutako helburu orokorrak

7.- Aztertutako ekintzen esparrua

Aztertutako ekintzen aplikazio-esparruak aztertu ziren:

APLIKAZIO-ESPARRUA	EKINTZA- KOPURUA
Aisialdia	% 63,8
Kultura	% 31
Familia	% 29,3
Euskalduntzea, prestakuntza	% 22,4
Kirola	% 10,3
Lan-mundua	% 8,6
IKT	% 1,7
Administrazioa	% 1,4
Besteak	% 13,8

Taula: Aztertutako ekintzen aplikazio-esparrua




Grafikoa: Aztertutako ekintzen aplikazio-esparrua

8.- Aztertutako ekintzak nori zuzenduak diren

Aztertutako ekintzak zein populazioari zuzenduak ziren definitu zen.

NORI ZUZENDUAK DIREN	EKINTZA- KOPURUA
Gazteei	%44,8
Familiei	% 34,5
Euskaldunei	% 31
Etorkinei	% 17,2
Ez-euskaldunei	% 17,2
Adinekoei	% 6,9
Emakumeei	% 3,4
Populazio orokorrari	% 15,5
Besteak	% 13,8

Taula: Aztertutako ekintzak nori zuzenduak ziren.



Grafikoa: Aztertutako ekintzak nori zuzenduak ziren

Irizpidea: Pertsonak, Baliabideak, Aliantzak

9.- Baliabide ekonomikoak⁸

Erakundeei, HPS-ri eskatutako diru-kopuruari buruz, eskuratutako diru-kopuruari buruz, eta autofinantzaketari buruz galdetu zitzaien.

a) HPS-ri eskatutako diru-kopurua aurreko urtearekiko

ESKATUTAKO KOPURUA	ERAKUNDE-KOPURUA
Txikitu da	%20
Mantendu da	%16
Handitu da	%50
Ez daki edo ez du erantzun	% 14
GUZTIRA	%100

Taula: HPS-ri eskatutako diru-kopurua aurreko urtearekiko




Grafikoa: HPS-ri eskatutako diru-kopurua aurreko urtearekiko.

⁸ Diru-laguntza 2010.urtean lehengo aldiz jaso zuten erakundeak ez dira barne hartu.

b) HPS-rengandik eskuratutako diru-kopurua aurreko urtearekiko

ESKATUTAKO KOPURUA	ERAKUNDE-KOPURUA
Txikitu da	% 52
Mantendu da	%10
Handitu da	% 26
Ez daki edo ez du erantzun	% 12
GUZTIRA	%100

Taula: HPS-rengandik eskuratutako diru-kopurua aurreko urtearekiko



Grafikoa: HPS-rengandik eskuratutako diru-kopurua aurreko urtearekiko

c) Auto-finantzaketa aurreko urteekiko

ESKATUTAKO KOPURUA	ERAKUNDE-KOPURUA
Txikitu da	% 8
Mantendu da	% 22
Handitu da	% 58
Ez daki edo ez du erantzun	% 12
GUZTIRA	%100

Taula: Auto-finantzaketa aurreko urtearekiko



Grafikoa: Auto-finantzaketa aurreko urtearekiko

Irizpidea: Prozesuak

10.- Aztertutako ekintzen izaera

Aztertutako ekintzak berriak ziren galdetu zitzaien.

EKINTZA BERRIA DEN	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 25,9
Ez	% 72,4
Ez daki edo ez du erantzun	% 1,7
GUZTIRA	% 100

Taula: Aztertutako ekintzen izaera




Grafikoa: Aztertutako ekintzen izaera

11.- Aztertutako ekintzak berritzea

Berriak ez direnen kasuan, aldaketak zein proportziotan egin diren.

ALDAKETEN PROPORTZIOA	EKINTZA- KOPURUA
%0-25	% 48,6
%25-50	% 24,3
%50-75	% 18,9
%75-100	%8,1
GUZTIRA	% 100

Taula: Berriak ez ziren ekintzetan egindako aldaketen proportzioa



Grafikoa: Berriak ez ziren ekintzetan egindako aldaketen proportzioa.


12.- Difusioa

Erakundeei, garatutako euskara-planei edota ekintzei egindako difusioari buruz galdetu zitzaien.

a) Erakundeentzat difusioak duen garrantzia

DIFUSIOAREN GARRANTZIA	ERAKUNDE-KOPURUA
Oso txikia	% 4
Txikia	% 0
Ertaina	% 18
Handia	% 56
Oso handia	% 18
Ez daki edo ez du erantzun	% 4
GUZTIRA	% 100

Taula: Erakundeentzat difusioak duen garrantzia



Grafikoa: Erakundeentzat difusioak duen garrantzia

b) Diru-laguntza eskatzerakoan, difusioa kontutan hartzen duten

KONTUTAN HARTZEA	ERAKUNDE-KOPURUA
Bai	% 72
Ez	% 26
Ez daki edo ez du erantzun	% 2
GUZTIRA	% 100

Taula: Erakundeek diru-laguntza eskatzerakoan difusioa kontutan hartzea.




Grafikoa: Erakundetik diru-laguntza eskatzerakoan difusioa kontutan hartzea.

c) Difusiorako erabilitako aurrekontuaren portzentajea

PORTZENTAJEA	ERAKUNDE-KOPURUA
%0-25	% 84
% 25-50	% 8
% 50-75	% 2
Ez daki edo ez du erantzun	% 6
GUZTIRA	% 100

Taula: Difusiorako erabilitako aurrekontuaren portzentajea




Grafikoa: Difusiorako erabilitako aurrekontuaren portzentajea

d) Difusioa egiteko erabilitako bideak

ERABILITAKO BIDEAK	ERAKUNDE-KOPURUA
Webguneak	% 92
Kartelak	% 86
Idatzizko hedabideak	% 80
E-posta	% 70
Ahoz aho	% 54
Irratia	% 46
Telebista	% 22
Sare sozialak	% 20
Besteak (bandoa, ...)	% 18

Taula: Difusioa egiteko erabilitako bideak



Grafikoa: Difusioa egiteko erabilitako bideak


13.- Aztertutako ekintzen difusioa

Erakundeei, aztertutako ekintzen difusioari buruz galdetu zitzaien.

a) Erakundeentzat, ekintza hauen difusioak duen garrantzia

GARRANTZIA	EKINTZA- KOPURUA
Oso txikia	% 1,7
Txikia	% 3,4
Ertaina	% 0
Handia	% 77,6
Oso handia	% 15,3
Ez daki edo ez du erantzun	% 1,7
GUZTIRA	% 100

Taula: Erakundeentzat, ekintzen difusioak duen garrantzia




Grafikoa: Erakundeentzat, ekintzen difusioak duen garrantzia

b) Ekintzarako diru-laguntza eskatzerakoan, difusioa kontutan hartu den

DIFUSIOA KONTUTAN HARTZEA	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 74,1
Ez	% 20,7
Ez daki edo ez du erantzun	% 5,2
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzarako diru-laguntza eskatzerakoan difusioa kontutan hartu den



Grafikoa: Ekintzarako diru-laguntza eskatzerakoan difusioa kontutan hartu den

c) Ekintzarako aurrekontuaren zein portzentaje erabili den difusiorako

AURREKONTUAREN PROPORTZIOA	EKINTZA- KOPURUA
%0-25	% 74
%25-50	% 19
%50-75	% 1,7
%75-100	% 1,7
Ez daki edo ez du erantzun	% 3,4
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzarako aurrekontuaren zein portzentaje erabili den difusiorako




Grafikoa: Ekintzaren aurrekontuaren zein portzentaje erabili den difusiorako

d) Ekintzaren difusiorako erabilitako bideak

ERABILITAKO BIDEAK	EKINTZA- KOPURUA
Webguneak	% 81
Ahoz aho	% 70,7
Kartelak	% 69
Idatzizko hedabideetan	% 65,5
E-posta	% 48,3
Irratia	% 22,4
Sare sozialak	% 20,7
Telebista	% 10,3
Besteak	% 34,5

Taula: Ekintzaren difusiorako erabilitako bideak



Grafikoa: Ekintzaren difusiorako erabilitako bideak


14.- Parte-hartzaileen satisfazioa

Erakundeei, ekintzetan parte hartu zuten pertsonen satisfazioa neurtzen zen, hau neurtzeko erabilitako prozedurak zeintzuk ziren, eta jasotako informazioaren arabera aldaketak egiten ziren galdetu zitzaien.

a) Parte-hartzaileen satisfazioa neurtzea

SATISFAZIOA NEURTZEA	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 74,1
Ez	% 22,4
Ez daki edo ez du erantzun	% 3,4
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte-hartzaileen satisfazioa neurtzen den




Grafikoa: Parte-hartzaileen satisfazioa neurtzen den

b) Parte-hartzaileen satisfazioa neurtzeko erabilitako prozedurak

ERABILITAKO PROZEDURAK	EKINTZA- KOPURUA
Telefonozko inkesta	% 5,2
Idatzizko inkesta	% 48,3
Besteak	% 39,7
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte-hartzaileen satisfazioa neurtzeko erabilitako prozedurak.




Grafikoa: Parte-hartzaileen satisfazioa neurtzeko erabilitako prozedurak.

c) Jasotako informazioaren arabera aldaketak egitea

ALDAKETAK EGITEA	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 84,2
Ez	% 15,8
GUZTIRA	% 100

Taula: Jasotako informazioaren arabera aldaketak egiten diren



Grafikoa: Jasotako informazioaren arabera aldaketak egiten diren

15.- Planen bidez bilatutako helburuen lorpena neurtzeko prozedura

Erakundeei, garatutako edo onartutako euskara-planen bidez bilatutako helburuen lorpena neurtzeko prozedurak definituak zituzten galdetu zitzairen.

PROZEDURAK DEFINITZEA	ERAKUNDE-KOPURUA
Bai	% 70
Ez	% 22
Ez daki edo ez du erantzun	% 8
GUZTIRA	% 100

Taula: Helburuen lorpena neurtzeko prozedurak definituak izatea



Grafikoa: Helburuen lorpena neurtzeko prozedurak definituak izatea


16.- Aztertutako ekintzen parte-hartzaileen kopurua zehaztea

Erakundeei, garatutako ekintzen parte-hartzaile potentzialen, espero ziren parte-hartzaileen, eta parte hartutako pertsonen kuantifikazioa egin zuten galdetu zitzairen.

a) Parte-hartzaile potentzialen kuantifikazioa

KUANTIFIKATUA IZATEA	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 60,3
Ez	% 39,7
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzen parte-hartzaile potentzialen kuantifikazioa egitea




Grafikoa: Ekintzaren zehazketen parte-hartzaile potentzialen kuantifikazioa egitea

b) Espero ziren parte-hartzaileen kuantifikazioa

KUANTIFIKATUA IZATEA	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 65,5
Ez	% 34,5
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzetan espero ziren parte-hartzaileen kuantifikazioa egitea




Grafikoa: Ekintzetan espero ziren parte-hartzaileen kuantifikazioa egitea

c) Parte hartu zutenen kuantifikazioa

KUANTIFIKATUA IZATEA	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 69
Ez	% 31
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzetan parte hartu zuten parte-hartzaileen kuantifikazioa egitea




Grafikoa: Ekintzetan parte hartu zuten parte-hartzaileen kuantifikazioa egitea

17.- Aztertutako ekintzen helburu zehatzen lorpena neurtzeko prozedurak izatea

Erakundeei, aztertutako ekintzen helburu zehatzen lorpena neurtzeko prozedurak zituzten galdetu zitzaien.

PROZEDURAK IZATEA	EKINTZA- KOPURUA
Bai	% 63,8
Ez	% 32,8
Ez daki edo ez du erantzun	% 3,4
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzen helburu zehatzen lorpena neurtzeko prozedurak izatea



Grafikoa: Ekintzen helburu zehatzen lorpena neurtzeko prozedurak izatea

Irizpidea: Emaitzak


18.- Aztertutako ekintzen balioa

Erakundeei, aztertutako ekintzek hutsune bat betetzeagatik eta euskaraz izateagatik zuten balioaz galdetu zitzaien.

a) Hutsune bat betetzeagatik ekintzek zuten balioa

BALIOA	EKINTZA- KOPURUA
Txikia	% 1,7
Ertaina	% 6,9
Handia	% 67,2
Oso handia	% 24,1
GUZTIRA	% 100

Taula: Hutsune bat betetzeagatik zuten balioa




Grafikoa: Hutsune bat betetzeagatik zuten balioa

b) Euskaraz izateagatik zuten balioa

BALIOA	EKINTZA- KOPURUA
Txikia	% 1,7
Ertaina	% 10,3
Handia	% 56,9
Oso handia	% 27,6
Ez daki edo ez du erantzun	% 3,4
GUZTIRA	% 100

Taula: Euskaraz izateagatik zuten balioa




Grafikoa: Euskaraz izateagatik duten balioa

19.- Aztertutako ekintzen parte-hartzea

Berriak ez ziren ekintzen kasuan, aurreko urteekiko parte-hartzaileen kopurua handitu, txikitu edo mantendu zen galdetu zitzaien.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA	EKINTZA- KOPURUA
Txikitu da	% 2
Mantendu da	% 59,2
Handitu da	% 38,8
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte-hartzaile kopurua aurreko urteekiko




Grafikoa: Parte-hartzaile kopurua aurreko urtearekiko

20.- Helburuen lorpena

Erakundeei, EBPN onartu edota garatzearekin lortu nahi ziren helburuen lorpen-mailari buruz galdetu zitzaien.

LORPEN-MAILA	ERAKUNDE-KOPURUA
%0-25	% 6
%25-50	% 10
%50-75	% 24
%75-100	% 12
Ez daki edo ez du zehaztu	% 48
GUZTIRA	% 100

Taula: Helburuen lorpen-maila




Grafikoa: Helburuen lorpen-maila

21.- Aztertutako ekintzen helburu zehatzen lorpen-maila

Erakundeei, aztertutako ekintzen helburu zehatzen lorpen-maila zein zen galdetu zitzaien. Hemen azaldutako datuak, batezbestekoak dira.

LORPEN-MAILA	EKINTZA- KOPURUA
% 0-25	% 6,9
% 25-50	% 8,6
% 50-75	% 27,6
% 75-100	% 29,3
Ez daki edo ez du erantzun	% 27,6
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzen helburu zehatzen lorpen-maila



Grafikoa: Ekintzen helburu zehatzen lorpen-maila

Inpaktua

22.- Planen bidez eragindako inpaktua

Erakundeei, haiek onartu edo garatutako planen bidez eragindako inpaktuari buruz galdetu zitzaien.

ERAGINDAKO INPAKTIA	ERAKUNDE-KOPURUA
Oso txikia	% 0
Txikia	% 2
Ertaina	% 42
Handia	% 46
Oso handia	%0
Ez daki edo ez du zehaztu	% 10
GUZTIRA	% 100

Taula: Eragindako inpaktua




Grafikoa: Eragindako inpaktua

23.- Aztertutako ekintzek eragindako inpaktua

Erakundeei, aztertutako ekintza zehatzen bidez eragindako inpaktuari buruz galdetu zitzaien.

ERAGINDAKO INPAKTUA	EKINTZA- KOPURUA
Txikia	% 5,2
Ertaina	% 17,2
Handia	% 56,9
Oso handia	% 13,8
Ez daki edo ez du erantzun	% 6,9
GUZTIRA	% 100

Taula: Ekintzek eragindako inpaktua



Grafikoa: Ekintzek eragindako inpaktua

B.- INFORMAZIO KUALITATIBOA

Erakundeek, informazio kuantitatiboa emateaz gain, informazio kualitatiboa ere eman dute. Atal honetan, jasotako informazio hori laburki azaltzen da.

Irizpidea: Politika eta Estrategia

Deialdira aurkeztearen arrazoiak:

- Euskararen normalizaziorako egiten den guztia nolabait ordenatzeko, edo marko bat zehazteko.
- Lan egin ahal izateko, baliabideak mugatuak direlako.
- Deialdiaren bitartez, eta planaren bitartez, marko orokor bat zehazten delako, irizpide batzuk markatzea lagungarria delako.
- Era askotariko ekintzak aukeratu eta aurrera eramateko aukera ematen duelako.
- Plana zehazteak oinarriak zehazten ditu eta hortik abiatuta lan egitea zentzudunagoa delako.

Irizpidea: Lidergoa

Udal eta eragileen arteko elkarlana:

- Udal askok herriko eragileekin elkarlanean aritzearen garrantzia azpimarratzen dute (euskara-elkarteak, aisialdirako taldeak, eskolak, guraso-elkarteak, merkatariak, ...).
- Diagnosi egokia egiteko, plan estrategikoa zehazteko, ekintzen aukeraketa egiteko, eta ekintzak burutzeko, eragile desberdinen arteko koordinazioaren garrantzia azaltzen dute udal askok.

Irizpidea: Emaitzak

Ekintzen balioa:

- Ekintza batzuek testuinguru euskaldun batean jendea ezagutzeko aukera ematen dute, eta horrek ondorengo harremanak euskaraz izango direla ia ziurtatzen du.
- Egunerokotasunari lotutako ekintzak euskaraz eskaintzeaz, hizkuntza hau normaltasunez bizi eta erabiltzea errazten du.
- Ekintza berezi batzuk euskaraz soilik egiteak, hizkuntzari nolabaiteko “prestigioa” ematen dio.
- Arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzeak balio handia du: harremanak euskaraz izan daitezke, hizkuntzari praktikotasun handiagoa ematen zio, naturaltasunez bizitzea errazten du, ...
- Testuinguru formaletatik at ekintzak burutzeak hizkuntza “derrigortasunik” gabe erabiltzea eta honekiko jendeak duen pertzepzioa aldarazten du.

Inpaktua

Inpaktuarekin zerikusia duten alderdiak:

- Inpaktua hobetzeko, prozesuan inplikaturiko agente anitzen arteko koordinazioa eta elkarlana hobetu beharra dago.
- Herri txikietan euskarazko eskaintza zabaltzeak inpaktu handia du jendea beste herri handiagoetara joateko beharra ez duelako.
- Euskararen arnas guneak zaindu behar dira, hortaz, herri hauetan euskarazko ekintzak garatzeak inpaktu handia du.
- Ekintza batzuek, euskararen erabilerari lotutako aldaketak sorrarazi baino, jarrera edo portaera positiboak mantentzen laguntzen dute.
- Herritarren jarrera euskararekiko ez da aldatuko Administrazioa eredu ez bada. Benetako normalkuntza eman dadin, Administrazioa goitik behera euskaldundu beharko litzateke.
- Herri askotan haurrei zuzendutako ekintzak lehenetsi dira, baina helduengan euskararen erabilera sustatzen ez bada, belaunaldien artean ez da transmisioa eta erabilera ziurtatuko.
- Diagnosi-lanetan herri agente desberdinak n direnean, sentsibilizazio-lana ere egiten da, ondoren agente horiek inplikazio handiagoa erakusten dutelarik.
- Benetako inpaktua lortzeko, esparru guztietan eragin behar da, euskara sektore edo eguneroko ekintza zehatz batzuetara mugatu ez dadin.
- Ekintza puntualek inpaktua eragin dezakete une batetan, baina epe luzearako inpaktua eta benetako aldaketak sorrarazi nahi badira, denboran zehar burutu behar dira, eta estrategikoki programatuak izan behar dira.

5.2.- Ekintzetako parte-hartzaileengandik jasotako informazioa

A.- INFORMAZIO KUANTITATIBOA


Ikerketan parte hartutako pertsonen profila

Ikerketan parte hartutako herritarren generoa, adina, jaioterria, bizilekua, eta euskara-maila ezagutu nahi zen.

1.- Generoa

GENEROA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Emakumea	% 55,3
Gizona	% 36,9
Ez du erantzun	% 7,8
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako pertsonen generoa




Grafikoa: Ikerketan parte hartu duten pertsonen generoa

2.- Adina

Ikerketan parte hartutako pertsonen adina azaltzen da multzokatuta. Hauen batezbesteko adina 37,7 urtekoa da.

ADIN- TARTEA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
18 urte baino gutxiago ⁹	% 4,9
18-30 urte	% 17,6
30-40 urte	% 31,1
40-50 urte	% 20,1
50-60 urte	% 5,8
60 urtetik gora	% 8,6
Ez du erantzun	% 1,9
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako pertsonen adina



Grafikoa: Ikerketan parte hartutako pertsonen adina


⁹ Adin gabekoen kasuan, gurasoekin batera erantzun zuten galdesorta.

3.- Jaioterria

Ikerketan parte hartutako pertsonen jaioterria multzokatuta azaltzen da.

JAOTERRIA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Araba	% 11,7
Bizkaia	% 27,2
Gipuzkoa	% 36,9
Ehtik kanpo	% 15,5
Ez du erantzun	% 8,7
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako pertsonen jaioterria




Grafikoa: Ikerketan parte hartutako pertsonen jaioterria

4.- Bizilekua

Ikerketan parte hartutako pertsonen bizilekua azaltzen da, multzokatuta.

BIZILEKUA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Araba	% 13,6
Bizkaia	% 22,3
Gipuzkoa	% 56,3
Ez du erantzun	% 7,8
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako pertsonen bizilekua



Grafikoa: Ikerketan parte hartutako pertsonen bizilekua


5.- Euskara-maila

Ikerketan parte hartu zuten pertsonei, haien euskara-maila zein zen galdetu zitzaien. Horretarako, lau alderdi desberdindu ziren: ulermenena, idazmena, irakurmena, eta hizkera.

a) Ulermen-maila

GAITASUN- MAILA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Ezer edo gutxi	% 13,6
Zerbait	% 1,9
Nahikoa	% 4,9
Ona	% 55,4
Oso ona	% 24,2
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako pertsonen euskarazko ulermen-maila




Grafikoa: Ikerketan parte hartutako pertsonen euskarazko ulermen-maila

b) Idazmen-maila

GAITASUN- MAILA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Ezer edo gutxi	% 16,5
Zerbait	% 2,9
Nahikoa	% 8,7
Ona	% 41,1
Oso ona	% 30,7
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako pertsonen euskarazko idazmen-maila




Grafikoa: Ikerketan parte hartutako pertsonen euskarazko idazmen-maila

c) Irakurmen-maila

GAITASUN- MAILA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Ezer edo gutxi	% 14,6
Zerbait	% 2,9
Nahikoa	% 6,8
Ona	% 20,1
Oso ona	% 55,6
GUZTIRA	% 100

Taula: Ikerketan parte hartutako pertsonen euskarazko irakurmen-maila




Grafikoa: Ikerketan parte hartutako pertsonen euskarazko irakurmen-maila

d) Hizkera-maila

GAITASUN- MAILA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Ezer edo gutxi	% 13,6
Zerbait	% 5,8
Nahikoa	% 2,9
Ona	% 22,5
Oso ona	% 55,2
Erabat ados	% 25,2
Ez daki edo ez du erantzun	% 15,5
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte-hartzaileak euskaraz gehiago aritzea.




Grafikoa: Parte hartzaileak euskaraz gehiago aritzea.

c) “Ekintza honi esker, euskararekiko jarrera positiboagoa daukat”

ADOSTASUN- MAILA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Erabat desados	% 2,9
Desados	% 2,9
Ez ados, ez desados	% 33
Ados	% 9,7
Erabat ados	% 31,1
Ez daki edo ez du erantzun	% 20,4
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte-hartzaileek euskararekiko jarrera positiboagoa izatea.




Grafikoa: Parte hartzaileek euskararekiko jarrera positiboagoa izatea.

2.- HARREMAN-SAREETAN ERAGINDAKO INPAKTUA

a) “Ekintza honi esker, jende gehiagorekin aritzen naiz euskaraz”

ADOSTASUN- MAILA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Erabat desados	% 5,8
Desados	% 6,8
Ez ados, ez desados	% 32
Ados	% 14,6
Erabat ados	% 24,3
Ez daki edo ez du erantzun	% 16,5
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte-hartzaileak euskaraz jende gehiagorekin aritzea.




Grafikoa: Parte-hartzaileak euskaraz jende gehiagorekin aritzea.

3.- GIZARTE-EGITURAN ERAGINDAKO INPAKTUA

a) “Ekintza honi esker, euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen dut”

ADOSTASUN- MAILA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Erabat desados	% 9,7
Desados	% 13,6
Ez ados, ez desados	% 23,3
Ados	% 12,6
Erabat ados	% 19,4
Ez daki edo ez du erantzun	% 21,4
GUZTIRA	% 100

Taula: Parte-hartzaileek euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzea.



Grafikoa: Parte-hartzaileek euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzea.

INPAKTUA:

EBPN DEIALDIAREN HELBURUEN LORPENA

EUSKARAREN TRANSMISIOA	EUSKARAREN ERABILERA	EUSKARAREN KALITATEA EDO ESTATUSA
• Parte-hartzaileen %76,6arentzat, garatutako ekintzak euskara-maila hobetzen laguntzeko egokiak edo oso egokiak dira. • Parte-hartzaileen %66arentzat, garatutako ekintzak, euskararen transmisioa bultzatzeko egokiak edo oso egokiak dira. • Parte-hartzaileen %38,8arentzat, ekintza hauek euskal historia eta kultura gehiago ezagutarazteko egokiak edo oso egokiak dira.	• Parte-hartzaileen %80,6arentzat, garatutako ekintzak euskararen erabilera sustatzeko egokiak edo oso egokiak dira. • Parte-hartzaileen %77,7arentzat, euskara arlo gehiagotara zabaltzeko egokiak edo oso egokiak dira ekintza hauek. • Parte-hartzaileen %68,9arentzat, harreman-sareak zabaltzeko egokiak edo oso egokiak dira.	• Parte-hartzaileen %35arentzat, gai jakin batzuetan trebatzeko egokiak edo oso egokiak dira. • Parte-hartzaileen %49,5arentzat jakintzak zabaltzeko egokiak edo oso egokiak dira. • Parte-hartzaileen %80,6arentzat euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko egokiak edo oso egokiak dira.

INPAKTUA:

PARTE-HARTZAILEENGAN ERAGINDAKO INPAKTUA

NORBANAKO EZAUGARRIAK

- Parte-hartzaileen %37,8ak, ekintza hauei esker hizkuntzaren **ezagutza eta trebetasunak hobetu** dituela dio.
- Parte-hartzaileen %35,9ak, ekintzari esker **euskara gehiago erabili** duela dio.
- Parte-hartzaileen %40,8ak, ekintza hauei esker **euskararekiko jarrera positiboagoa** duela dio.

HARREMAN-SAREAK

- Parte-hartzaileen %38,9ak ekintza hauei esker **euskaraz jende gehiagorekin hitz egiten** duela dio.

GIZARTE-EGITURA

- Parte-hartzaileen %32ak ekintza hauei esker **euskara arlo gehiagotan** erabiltzen lagundu diola dio.

Inpaktuari buruzko datuak ikusita, EBPN deialdiaren bidez diruz lagundutako planetako ekintzek emaitza positiboak lortzen dituztela esan genezake.

EBPN deialdiaren helburuen lorpenari dagokionez, deialdiak ekintza mota desberdin asko barne hartzeak helburu oso desberdinak eta esparru desberdinetan eragitea ahalbidetzen du, eragina zabalagoa izan daitekeelarik. Helburuen lorpenari buruzko datuei so eginez, parte-hartzaileen iritziz, orokorragotzat jo daitezkeen helburuen lorpen-maila (transmisioa indartzea, erabilera sustatzea, ...) handiago da helburu zehatzagoen kasuan baino (euskal historia eta kultura ezagutaraztea, adibidez).

Euskararen transmisioari dagokionez, aztertutako ekintzak euskara-maila eta euskararen transmisioa bultzatzeko baliagarriak dira, baina aurretik esan bezala, euskal historia eta kultura ezagutarazteko duten balioa ez da hain altua.

Euskararen erabilerari dagokionez, aztertutako ekintzak euskararen erabilera sustatzeko baliagarriak direla diote parte-hartzaileek. Horretaz gain, euskara arlo gehiagotara zabaltzeko eta euskarazko harreman-sareak zabaltzeko duten balioa ere altuak dira.

Hizkuntzaren kalitate edo estatusari dagokionez, aztertutako ekintzek hizkuntzaren estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko balio altua dute. Gai jakin batzuen inguruan trebatzeko eta jakintzak zabaltzeko duten balioa, ordea, ez da hain altua.

Ekintzetan parte hartu duten parte-hartzaileengan eragindako inpaktuari dagokionez, emaitzak positiboak direla esan genezake: ekintza hauetan parte hartzearen ondorioz hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu dituzte, euskara gehiago erabili dut, euskararekiko jarrera positiboagoa dute, euskaraz jende gehiagorekin hitz egin dute, eta euskara arlo gehiagotan erabili dute.

8.- AZKEN BALORAZIOA

EBPN deialdira aurkezten diren udal edo herriak oso izaera desberdinekoak izan daitezke. Ez soilik biztanle euskaldunen proportzioaren aldetik, baizik eta euskaraz hitz egin edota bizitzeko ohitura dutenen proportzioaren aldetik (ezaugarri hau kuantifikatzen zailagoa da noski).

Aurreko ataleko emaitzei so eginda, alde batetik, deialdia, bere helburu orokorrak lortzeko bide onetik doala esan genezake. Deialdi honek era askotako ekintzak laguntzen ditu, populazio orokorrari zein azpi-populazio desberdinei zuzenduak eta esparru oso desberdinetan eragin dezaketenak. Horrek eragin-ahalmena handitzen duela pentsa genezake.

Bestalde, ekintzetan parte hartutako pertsonengan eragindako inpaktuari buruzko datuei so eginda, positiboak direla esan genezake. Alde batetik, parte-hartzaile askorengan hizkuntzaren erabilerari lotutako aldaketak eragin direlako (hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetzea, euskaraz jende gehiagorekin aritzea, ...), eta bestetik, hizkuntzaren erabilerari lotutako jarrerak edo portaerak mantentzen laguntzen dutelako. Hau da, pertsona batzuengan aldaketak eragin dira, eta beste batzuengan, erabilera-ohiturak mantentzea eragin da.

Deialdiak emaitza positiboak lortzea indargune batzuen ondorioa da, baina prozesu osoa aztertzerakoan ikusi den bezala, badira hobetu beharreko alderdi batzuk ere. Beraz, deialdiaren indargune horiek zainduaz, eta identifikatutako ahulgune horiengan aldaketak sorraraziz, deialdiaren inpaktua handituko dela aurreikusi genezake.

Hurrengo tauletan, prozesu osoan identifikatutako ahulgune eta indargune nagusiak azalduko ditugu laburki, ondoren, alderdi horiek hobetzeko proposamen batzuk aurkeztuko direlarik.

	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
POLITIKA ETA ESTRATEGIA	- Deialdi zabala da, arlo eta ekintza desberdin asko laguntzen ditu, populazio desberdinen beharrak kontutan hartuz eta esparru desberdinetan eraginez. - Erakundeek, orokorrean, deialdiaren balorazio positiboa egiten dute. - Ezaugarri desberdinetako udal edo toki-entitateak aurkeztu daitezke. - Erakunde batzuek diagnosia, diseinua, ekintzen aukeraketa ... eragileekin elkarlanean egiten dute. Orokorrean hau ondo baloratua da. - Ekintzek euskara gehiago erabiltzea sustatzen dute pertsona batzuengan. Beste batzuengan, ordea, euskara erabiltzen jarraitzea sustatzen da.	- Deialdia hain zabala izateak tokian tokiko beharretara egokitzeak zaildu egiten dezake. - Ez dago argi zein entitatek edo zein ezaugarrietako herriek izan behar duten lehentasuna, nahiz eta euskaldunenak eta erdaldunenak saritzea joera berria izango den. - Irati aplikazioa ez da behar bezain erabilgarria. - Deialdiak ez du eskatzen edo saritzen entitateek eragileekin elkarlana egitea.
LIDERGOA	- Ezaugarri desberdinetako entitateak aurkezten dira. - Ondo baloratzen da HPS-rekin izandako harremana. - Deialdiak entitate eta eragileen arteko koordinazioa bultzatzen du. - Ekintzak antolatu eta bideratu dituzten pertsonen lana ondo baloratua da.	- Deialdiak ez du eskatzen ezta saritzen ere, entitate eta eragileen arteko elkarlana, nahiz eta HPS-tik elkarlan hori sustatu nahi den. - Udal batzuek, euskararen aldeko lana egiten duten arren, ez dute eredu bezala jokatzeko.

	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
PERTSONAK, BALIABIDEAK ETA ALIA NTZAK	- Ekintzetan erabilitako baliabideak (bai materialak, bai pertsonalak) ondo baloratuak dira.	- Deialdiaren epeak luzatzeak aurreikuspen egokia egitea zailtzen du, eta finantziazio-arazoak sortzen ditu. - Ez da entitateen arteko komunikazioa ematen, behintzat eredu formal batetan, ekintzen sozializazioa egiteko.
PROZESUAK	- Erakundeentzat, orokorrean, difusioa garrantzitsua da, eta hau egiteko bide desberdinak erabiltzen dira (webguneak, kartelak, idatzizko hedabideak, e-posta, ...). - Ekintzetan parte hartu duten pertsonen satisfazioa neurtzen dute erakunde gehienek, eta jasotako informazio horren arabera ekintzetan aldaketak egiten dira. - Ekintzen antolamendua, orokorrean, ona da.	- Administrazioan, ohiko bideak jarraitzeak epeak luzatzen ditu. Aurretikako tramitazioa egitea baloratu beharko litzateke. - Planen eta ekintzen, eta hauen bidez lortutako emaitzen difusioa hobetu beharra dago, herritarrengana heltzeko eta parte-hartzaile berriak erakartzeko. - Entitate gehienek helburuen lorpena estimatzeko prozedurak dituzten arren, askok ez dute emaitzen lorpen-maila zehaztu. - HPS-k eskainitako adierazle-sistema gutxi erabiltzen dute.

	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
EMAITZAK	- Ekintzek, betetzen duten hutsuneagatik eta euskaraz egoteagatik, balio handia dute. - Parte-hartzaileek, egunerokotasunari lotutako ekintzak ondo baloratzen dituzte, batez ere harreman berriak ezartzeko ere baliogarriak badira. - Ekintzek, EBPN deialdiaren helburuak lortzeko eraginkortasun, gailentasun eta egokitasun handia dute. - Ekintzek balio handia dute, bereziki euskar-maila hobetzen laguntzeko, euskararen transmisioa sustatzeko, euskararen erabilera sustatzeko, euskara arlo gehiagotara zabaltzeko, euskarazko harreman-sareak zabaltzeko, eta euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko. - Ekintzek, euskara erabiltzeko ohitura txikiagoa dutenengan, euskara gehiago erabiltzea sustatzen dute. Euskara erabiltzeko ohitura handiagoa dutenengan, ordea, erabilpen hori mantentzen laguntzen dute. - Parte-hartzaileen satisfazioa altua da.	- Ez da entitateen arteko komunikazioa ematen, behintzat eredu formal batetan, ekintzen eta emaitzen sozializazioa egiteko. - Ekintzen balioa ez da hain altua euskal historia edo kultura gehiago ezagutarazteko, gai jakin batzuetan trebatzekok, edo jakintzak zabaltzeko. - Erakunde batzuek ez dituzte ez parte-hartzaile potentzialak, ez bilatutakoak, ez lortutakoak zehazten, eta datu horiek kontutan hartu beharrekoak dira emaitzen estimazioa egiterakoan.

9.- HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

EBPN sektorea ezagutu ondoren, eta EFQM eredua oinarri bezala hartuta jasotako informazioa kontutan hartuta, honen indar-guneak mantenduz eta ahulguneak hobetuz, eragindako inpaktua handitzeko proposamenak azalduko dira atal honetan.

9.1.- EBPN deialdia: lagundu beharrekoa

Gaur egun bi jarduera-mota laguntzen dira: Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak onartzea, eta EBPN garatzea.

Ezaugarri desberdinetako udal eta toki-entitateak aurkezten dira (populazio-tamaina desberdinekoak, euskaldunen proportzio desberdinekoak, euskaraz hitz egiteko ohitura desberdinekoak, ...).

Oso euskaldunak diren herrietako udal batzuek eta erdaldunak diren herrietako udal batzuek lehentasuna izateko aldarrikapena luzatu dute. Euskararen arnaguneak zaindu beharra dago, baina erdaldunak diren herrietan egin beharreko euskararen erabileraren sustatze-lana handiagoa izan daiteke.

HPS-ko teknikariek, joera berria bi profil hauek saritzea dela aipatu dute, eta hein batetan egokia izan daiteke. Esan bezala, euskaldunak diren herriak zaindu behar dira, euskaldun edo euskararen erabilpena mantendu da. Bestalde, erdaldunak diren herriak saritzeak eta erdi-euskaldunak direnak edo bi mutur horien artean geratzen direnak ez saritzea diskriminatzailea izan daiteke, baina diskriminazio positibo bat bezala baloratu daiteke.

9.2.- EBPN deialdiak saritu beharrekoa

a) Entitate eta eragileen arteko elkarlana

Erakunde eskatzaileek, ekintzetako parte-hartzaileek, eta HPS-ko teknikariek aipatu dutenez, udal eta eragileen arteko elkarlana sustatu behar da. Egoeraren diagnosia, planaren diseinua, ekintzen aukeraketa ... udal eta eragileen artean egiten denean, inpaktua handiagoa dela aipatzen dute hiru agenteek. Hau HPS-tik gomendatzen den arren, ez da eskakizun bat diru-laguntza jaso ahal izateko, ez da saritu ere egiten. Hortaz, baldintza moduan jartzen ez den arren, behintzat ebaluazio-irizpideetan kontutan izan beharreko eta saritua izan beharreko alderdi garrantzitsua izan daiteke.

b) Entitateen arteko harremana edota komunikazioa

Erakunde batzuek eta HPS-ko teknikariek aipatu dute egokia izan daitekeela udal edo entitateen arteko harremana indartzea. EBPN deialdira herri desberdin asko aurkezten dira eta mota askotako ekintzak laguntzen dira diruz, eta ekintza hauen sozializazioa egitea lagungarria izan daiteke. Alde batetik, ekintzak garatu dituzten udalentzat errefortzu edo aitorpen bat izan daiteke, bestetik, ekintzak garatu nahi dituzten herriek arrakastatsuak izan daitezkeen ekintzak ezagutu ditzakete, eta azkenik, baliabide ekonomikoak hein batetan errentagarriak egiteko modu bat izan daiteke.

Hau HPS-tik egokia ikusten den arren, oraingoz ez da topaketarik bultzatu. Aukera desberdinak egon daitezke: alde batetik, beste deialdi batzuetan egiten den bezala, topaketa moduko batzuk HPS-k antolatzea, edo deialdian entitate desberdinen arteko elkarlana egitea saritua izatea.

9.3.- EBPN deialdiaren prozesua

HPS-ko teknikariek eta erakunde eskatzaileek azaldu duten bezala, epeak gehiegi luzatzen dira, eta hori entitateen kalterako da. Deialdia urte hasieran atera beharko litzateke udalek aurreikuspen egokia egin ahal izateko, bestela, ekintza asko garatu gabe gera daitezke. Administrazioak hau arintzeko mekanismo bat dauka, aurretikako tramitazioa egitea dena, beraz, hau martxan jartzea komenigarria litzateke.

9.4.- Ekintzen ezaugarriak

Ekintzetako parte-hartzaileek azaldu duten bezala, egunerokotasunari lotutako ekintzek balio handia dute, hizkuntza normaltasunez erabili ahal izateko, eta euskaraz bizitzen laguntzeko, batez ere testuinguru formaletatik kanpo. Halaber, ekintza hauek euskarazko harreman berriak egitea erraztu egiten badute, harreman horiek testuinguru desberdinetan ere euskaraz izatea ahalbidetuko dute, euskaraz esparru edo arlo desberdinetan arituz, eta harreman-sareak zabalduz. Ekintza-mota batzuk euskaraz soilik eskaintzeak, hizkuntzari nolabaiteko prestigioa ematen dio, batez ere gizarteak ondo baloratutako esparruei dagozkienean.

9.5.- Erakunde eskatzaileek landu edo hobetu beharreko alderdiak

Erakunde eskatzaileek hurrengo alderdiak landu edo hobetu beharko lituzkete, haiek egindako lanak emaitza hobeagoak lortu ditzan, eta deialdiaren inpaktua handitu dadin.

a) Lidergoa: Entitateak eredu

Erakunde eta parte-hartzaile batzuek aipatu dutenez, udal edo entitateek euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko ekintzak garatzea oso garrantzitsua da, baina entitate hauek diru-laguntzaren eskatzaileaz izateaz gain, herritarren aurrean bilatzen den jokaeraren eredu izan behar dute. Hortaz, Administrazio hauen barruan ere, euskararen erabilera sustatu eta eskatu behar da, herritarren aurrean jarraitu beharreko eredua zein den azalduaz.

b) Lidergoa: Eragileekin elkarlana

Erakundeek eta HPS-ko teknikariek aipatu dute entitateen eta eragileen arteko elkarlanak emaitza positiboagoak dituela. Hortaz, elkarlan hau egiten ez dutenek eta egiten dutenek ere, hau era formal batean burutu beharko lukete, hau da, haien funtzionamenduan sistematizatu beharko lukete.

c) Ekintzen planifikazio estrategikoa

Entitateek eta parte-hartzaileek aipatu dutenez, ekintza desberdinak garatzea positiboa da, arlo edo esparru desberdinen eragiten delako, populazioaren sektore desberdinetan eragiten delako, ... Dena dela, ekintza puntualek emaitza positiboak izan ditzaketen arren, ekintzak estrategikoki antolatuak izan behar dira. Denboran jarraipen bat izan behar dute, era egokian eskaini behar direlarik. Horretarako, oso lagungarria izan daiteke beste ataletan aipatutako elkarlana, herrietako eragile desberdinekin.

d) Planen eta ekintzen sozializazioa edo difusioa

Ekintzetako parte-hartzaileek eta HPS-ko teknikariek aipatu dutenez, difusioa hobetu beharra dago. Herriek, onartutako planen berri eman behar dute. Horrek nolabaiteko aitorpena emateaz gain, ezagutzera ematen ditu, euskararen normalizazioaren aldeko apustu edo konpromisoa indartuz, eta, halaber, jendea bat egitera motibatuz.

Ekintzen difusioa egiteko erabilitako bideak anitzak diren arren, ez dute erabat bat egiten entitateek erabilitako bide nagusiek eta parte-hartzaileek erabilitakoek. Hortaz, erakundeek aztertu beharko lukete zeintzuk diren herritarrengana heltzeko bide eraginkorrenak, eta difusioa zabaldu beharko lukete, herritar gehiagorengana heltzeko eta herritar berriak erakartzeko.

e) Emaizten estimazioa

Erakunde eskatzaileek, planen eta ekintzen helburuen lorpena estimatzeko indikatzaile edota prozedurak ondo zehaztuak eta definituak izan behar dituzte. Emaizak estimatzerakoan, datu kuantitatibo nahiz kualitatiboak jaso daitezke. Nolanahi ere, hauek aldezturik definituak izan behar dira, emaitzen estimazioa egin ahal izateko, egindako lanaren ebaluazioa eta entitateek auto-ebaluazioa egin ahal izateko.

Emaizten adierazleetako bat parte-hartzaileen kopurua denez gero, entitate guztiek ekintza bakoitzaren parte-hartzaile potentzialak kuantifikatu beharko lituzke, hauetako zenbatengana heltzea espero den kuantifikatu beharko luke, eta zenbatengana heldu den ere zenbatu beharko luke.

f) Emaizten difusioa

Plan eta ekintzen difusioa egiteaz gain, lortutako emaitzen difusioa ere egin behar da. Emaizak ezagutzera emateak, alde batetik, lan egin dutenentzat eta ekintzetan parte hartu dutenentzat errefortzu eta aitortpen bat egitea izango da, eta bestetik, herritarrak ere motibatze modu egokia izan daiteke. Emaizten difusioa egitea, hein batetan, esku-hartzea ere bada, motibazio-lana egiten duelako, hortaz, euskararen erabilpenaren sustatze-ekintza mota bat ere bada.

g) Entitateen arteko elkarlana eta ekintzen sozializazioa

Erakunde eskatzaileek, beste erakunde batzuekin elkarlana egin beharko lukete. Ekintzen sozializazioa egiteak onurak ekarri ditzake, aurretik aipatu dugun bezala: ekintzak garatu dituzten erakundeentzat aitortpen moduko bat da, ekintzak garatu nahi dituztenentzat bidea erakusteko modu bat da, eta inbertitutako baliabideak gehiago aprobetxatzeko modu bat da. Hortaz, erakundeek sare antzeko bat osatu beharko lukete, elkarlana eta kolaborazioa sustatuz.

9.6.- Erakunde eskatzaileei zuzendutako auto-ebaluaziorako tresna

Erakundeek auto-ebaluaziorako eta baita ere eragindako inpaktua estimatzeko erabili dezaketen tresna bat sortzea zen enkargua.

Erakundeek, euskara-planen eta ekintzen bidez bilatutako helburuak bete diren jakiteko, ezinbestekoa da ebaluazioa egitea. Aldi berean, etengabe hobetzen joan ahal izateko, ebaluazioa egin behar da, indar-gune eta ahulguneak identifikatzeko.

Hortaz, auto-ebaluazioa egiterakoan, abiatutako egoera, ezarritako helburuak, erabilitako prozedurak eta garatutako prozesua, eta lortutako emaitzak kontutan hartuko dira.

Jasotako datu hauek, urte amaierako memorian jasoko daitezke, nahi izan ezker.

Tresna, D eranskinean azaltzen da.

9.7.- Ekintzetako parte-hartzaileei zuzendutako tresna

Tresna hau ekintzetako parte-hartzaileei zuzendutako galdesorta bat den arren, erakundeentzat lagungarri izango daitekeen tresna bat da, parte-hartzaileen iritzia ezagutzeak eginiko lanaren kalitatea eta eragina estimatzen laguntzen duelako.

Tresna honen bidez, garatutako euskara-planen edota ekintzen bidez lortutako emaitzen eta eragindako inpaktuari buruzko informazioa jasoko dute erakundeek.

Tresna, E eranskinean azaltzen da.

9.8.- Auditoria-sistema

Auto-ebaluazioaren bidez eta ebaluazio-galdeketen bidez jasotako datuak memorian erantsi daitezke. Administrazioak, txostenen artean, zoriz, entitate edota ekintza batzuk aukeratzea proposatzen dugu, auditoria egiteko. Auditoria honen bidez, erakundeak aurkeztutako datu eta emaitzak zuzenak direla frogatuko da. Zoriz, galdeketei erantzun dioten parte-hartzaile edo pertsona batzuek jotzea proposatzen dugu, datuak kontrastatzeko.

10.- ERANSKINAK

A Eranskina: Ikerketan, erakunde eskatzaileei zuzendutako galdesorta orokorra.

B Eranskina: Ikerketan, erakunde eskatzaileei, garatutako ekintza zehatzei buruz zuzendutako galdesorta.

C Eranskina: Ikerketan, ekintzetako parte-hartzaileei zuzendutako galdesorta.

D Eranskina: Erakunde eskatzaileek auto-ebaluazioa egiteko proposatutako tresna.

E Eranskina: Ekintzetako parte-hartzaileek ebaluazioa egiteko proposatutako tresna.

A. ERANSKINA: IKERKETAN, ERAKUNDE ESKATZAILEEI ZUZENDUTAKO GALDESORTA OROKORRA

EBPN DEIALDIA

ERAKUNDE ESKATZAILEEI ZUZENDUTAKO GALDESORTA

UDALA:

Galdesortaren helburuak, batetik, 2010.urtean diruz lagundutako proiektu edota ekintzei buruzko informazioa jasotzea, eta bestetik, EBPN deialdiari buruzko balorazioa egitea da.

Mesedez, erantzun itzazue hurrengo galderak, dagozkien erantzunetan X bat jarriz, zenbaitetan erantzun-aukera bat baino gehiago hautatu daitekeela kontutan hartuta.

1.- Zer dela eta erabaki zenuten EBPN deialdira aurkeztea?			
2.- Zenbat urtez aurkeztu zarete EBPN deialdira?			
3.- Nola erabakitzen duzue zein ekintzak burutzea? Nola egiten duzue beharren identifikazioa?			
4.- Finantzaketa			
4.1 Zenbat urtez jaso duzue EBPN diru-laguntza?			
Aurreko urteetan diru-laguntza jaso bazenuten, erantzun:			
4.2 Eskatutako diru-kopurua aurreko urtearekiko	a. Handitu da	b. Mantendu da	c. Txikitu da
4.3 Jasotako diru-kopurua, aurreko urtearekiko	a. Handitu da	b. Mantendu da	c. Txikitu da
4.4 Auto-finantzaketa, aurreko urtearekiko	a. Handitu da	b. Mantendu da	c. Txikitu da

5.- EBPN eta garatutako ekintzak ezagutzera ematea edo hauen difusioa egitea					
5.1 Zein da zuentzat difusioak duen garrantzia?	Oso txikia	Txikia	Ertaina	Handia	Oso handia
5.2 Diru-laguntza eskatzerako orduan, difusioa kontutan izan al duzue?	Bai			Ez	
5.3 Aurrekontuaren zein portzentaje erabili duzue difusiorako?	%0-25	%25-50	%50-75	%75-100	
5.4 EBPN eta ekintzen difusioa egin baduzue, nola egin duzue?					
a.Telebistan	b.Irratian		c. Ahoz aho		
d. Prentsan	e. Kartelen bidez		f. E-posta bidez		
g.Webguneen bidez	h.Sare sozialen bidez		i.Beste modu batez, zein?		

6.- Garatutako ekintzen onuradunen edo parte-hartzaileen kopurua	
6.1 Zenbat pertsonen parte har zezaketen garatutako ekintzetan?	
6.2 Ekintzen balizko parte-hartzaile horietatik, zenbatek parte hartzea espero zenuten?	
6.3 Zenbat pertsonen hartu zuten parte azkenean?	

7.- Helburuak lortzea				
7.1 Ba al duzue prozedurarik helburuen lorpena neurtzeko?	Bai	Ez		
7.2 Baiezkoen kasuan, zeintzuk dira erabiltzen dituzuen prozedurak edota adierazleak?				
7.3 EBPN eta garatutako ekintzen helburuak adierazi eta bakoitzaren lorpen-maila zehaztu ezazue:				
Helburuak eta lorpen-maila	%0-25	%25-50	%50-75	%75-100
1				
2				
3				
...				

8.- Inpaktua				
8.1 EBPN deialdiaren helburu nagusia, euskararen erabilera sustatu eta normalizatzea denez gero, zein da zuen planak eta garatutako ekintzek honen harira eragindako inpaktua?				
Oso txikia	Txikia	Ertaina	Handia	Oso handia
8.2 Azaldu zuen erantzuna				

9.- EBPN deialdiari buruzko galderak											
Balora itzazue deialdiaren alderdi desberdinak, 0-10 bitarteko eskalaren bidez, 0 oso desagokoa eta 10 oso egokia direla kontutan izanda.											
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9.1 Deialdiaren edukia											
a. Deialdiak egiten duen estaldura											
b. Azpi-modalitateen bereizketa											
c. Zerbait gehitu edo azaldu nahi al duzue?											
9.2 Prozedura											
a. Eskaeren ebaluazioa											
b. Ebaluazioari buruz emandako informazioa											
c. Epeak											
d. Ebazpena											
e. Kudeaketa administratiboa											
f. Zerbait gehitu edo azaldu nahi al duzue?											
9.3 Finantzaketa											
a. Esleitutako diru-kopurua											
b. Ordainketa-sistema											
Zerbait gehitu edo aipatu nahi al duzue?											
9.4 HPS-rekin harremanak											
a. Teknikariek emandako arreta											
b. Teknikarien eraginkortasuna											
c. Zerbait gehitu edo azaldu nahi al duzue?											

10.- Zer da positiboki baloratzen duzuen EBPN deialdian?

--

11.-Zer uste duzue aldatu edo hobetu beharko litzatekeela EBPN deialdian?

--

B. ERANSKINA: IKERKETAN, ERAKUNDE ESKATZAILEEI, GARATUTAKO EKINTZA ZEHATZEI BURUZ ZUZENDUTAKO GALDESORTA

EBPN DEIALDIA

EKINTZEI BURUZKO GALDESORTA

UDALA:

EKINTZAREN IZENA:

Galdesortaren helburua, EBPN deialdiaren bidez diruz lagundutako ekintzei buruzko informazioa jasotzea da. Mesedez, erantzun itzazue hurrengo galderak x baten bidez aukeratutako erantzuna markatuz, eta zenbait kasutan erantzun bat baino gehiago ematea posible dela kontutan hartuta.

1.- Garatutako proiektu edo ekintzarekin lortu nahi ziren helburu nagusiak	
Zerbitzu berri bat euskaraz eskaintzea	1.7 Euskarazko harreman-sareak indartzea
Zerbitzu bat zabaltzea	1.8 Euskal historia/kultura ezagutaraztea
1.3 IKT arloan euskara zabaltzea	1.9 Hizkuntza-trebetasunak lantzea
Euskarazko produktu edota zerbitzuen kontsumoa sustatzea	1.10 Familia bidezko transmisioa bultzatzea
1.5 Euskarazko sormena bultzatzea	1.11 Beste batzuk (adierazi zeintzuk)
1.6 Helduen alfabetatze edo euskalduntzea	

2.- Garatutako proiektu edo ekintzaren aplikazio-esparrua	
2.1. Aisialdia	2.6 Administrazioa
2.2 Lan-mundua	2.7 Teknologia berriak
2.3 Familia-transmisioa	2.8 Kirola
2.4 Kultura	2.9 Beste batzuk (adierazi zeintzuk)
2.5 Euskalduntze-prestakuntza	

3.- Nori zuzendua den			
3.1 Populazio orokorrari			
3.2 Azpi-populazioei (adierazi zeintzuei):			
a. Emakumeak	b. Gazteak (<18)	c. Familiak	d. Etorkinak
e. Adinekoak	f. Euskaldunak	g. Ez euskaldunak	f. Besteak (adierazi zeintzuk)

4.- Proiektu ekintza berritzea			
4.1 Proiektu edo ekintza berria al da?	Bai	Ez	
4.2 Berria ez bada, zenbat aldiz eraman da aurrera?			
4.3 Aldaketak egin badira, zenbateko proportzioan egin dira?			
%0-25	%25-50	%50-75	%75-100

5.- Proiektuaren edo ekintzaren balio berezia					
	Oso txikia	Txikia	Ertaina	Handia	Oso handia
5.1 Zein da ekintza edo proiektu honek duen balioa, betetzen duen hutsuneagatik?					
5.2 Arrazoitu zure erantzuna					
5.3 Zer balio berezi dauka ekintza edo proiektu honek, euskaraz egoteagatik?					
5.4 Arrazoitu zure erantzuna					

6.- Ezagutza ematea edo difusioa				
Zein da zuentzat ekintza honen difusioa egiteak duen garrantzia?	Oso txikia	Txikia	Handia	Oso handia
Diru-laguntza eskatzerako orduan, difusioa kontutan izan al duzue?			Bai	Ez
Aurrekontuaren zein portzentaje erabili duzue difusiorako?	%0-25	%25-50	%50-75	%75-100
Difusioa egin baduzue, nola egin duzue?				
a.Telebistan	d. Prentsan		g.Webguneen bidez	
b.Irratian	e. Kartelen bidez		h.sare sozialen bidez	
c. Ahoz aho	f. E-posta bidez		i.Beste modu batez, zein?	

7.- Proiektu edo ekintzaren onuradunen/parte-hartzaileen kopurua		
Proiektu edo ekintzaren ezaugarrien arabera, zenbat pertsonak parte har zezaketen?		
Proiektu edo ekintzaren balizko parte-hartzaile horietatik, zenbatek parte hartzea espero zenuten?		
Zenbatek hartu zuten parte?		
2010.urtean, aurreko urteekiko, parte- hartzaileen kopurua		
Handitu da	Mantendu da	Txikitu da

8.- Ekintzen helburu zehatzen lorpena				
Ba al duzue prozedurarik ekintzen helburu zehatzen lorpena neurtzeko?			Bai	Ez
Baiezkoen kasuan, zeintzuk dira prozedura horiek?				
Egitasmoaren helburu zehatz bakoitza zenbateraino bete den adierazi	<%25	%25-50	%50-75	%75-100
1				
2				
3				
...				

9.- Parte-hartzaileen satisfazioa			
Neurtzen al duzue ekintzetako parte-hartzaileen satisfazioa?		Bai	Ez
Neurtzeko erabilitako prozedurak adierazi			
a.Telefono bidezko inkesta	b.Idatzizko galdesorta	c.Besteak? Adierazi zein	
Horren araberako aldaketarik egiten al duzue ekintza edo proiektuan?			
Adibideren bat jarri			

10.- Inpaktua				
Deialdiaren helburu nagusia, euskararen erabilera sustatu eta normalizatzea denez gero, zein da ekintza edo proiektu honek helburu horren harira eragindako inpaktua?				
Oso txikia	Txikia	Ertaina	Handia	Oso handia
Azaldu zuen erantzuna				

11.- Aurretik jasotako guztiaz aparte, zerbait gehiago komentatu nahi al duzue?

C. ERANSKINA: IKERKETAN, EKINTZETAKO PARTE- HARTZAILEEI ZUZENDUTAKO GALDESORTA

EBPN DEIALDIA:

EKINTZETAKO PARTE - HARTZAILEEI ZUZENDUTAKO GALDESORTA

Ekintza:

Udala:

Galdesortaren helburua, EBPN deialdiaren bidez diruz lagundutako ekintzei buruzko informazioa lortzea da. Emandako erantzunak konfidentzialak izango direla jakinda, hurrengo galderei erantzutea eskatzen dizugu, zenbaitetan erantzun-aukera bat baino gehiago hautatzea posible izango delarik .

Adina	Sexua	Emakumea	Gizona		
Jaioterria		Bizilekua			
Euskara-maila					
	Ezer edo gutxi	Zerbait	Nahikoa	Ondo	Oso ondo
Ulermena					
Idazmena					
Irakurmena					
Hizkera					

1.- Zergatik erabaki zenuen ekintza honetan parte hartzea?

2.- Horretaz aparte, hauetako helbururen bat al zenuen? (baiezkoak direnak X bidez markatu)

Sormena lantzea	Hizkuntza-trebetasunak lantzea
Euskarazko ekintzetan parte hartzea	Harreman-sareak indartzea
Euskal historia/kultura ezagutzea	Euskara gehiago erabiltzea

3.- Ekintza honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea da. 1etik 5erako eskala batean, baloratu hori lortzeko, ekintza-mota honen:

	1	2	3	4	5
Egokitasuna					
Eraginkortasuna					
Errelebantzia edo garrantzia					

4.- Balora ezazu ekintza honek duen balio edo egokitasuna, 1etik 5erako eskalan, 1 oso desegokia bezala, eta 5 oso egokia bezala ulertzen ditugula kontutan hartuta:

	1	2	3	4	5
Euskara-maila hobetzen laguntzeko					
Euskararen erabilera sustatzeko					
Euskararen transmisioa sendotzeko					
Euskal historia eta kultura gehiago ezagutzeko					
Gai jakin batean trebatzeko					
Jakintzak zabaltzeko					
Euskara arlo gehiagotara zabaltzeko					
Euskarazko harreman sareak sendotzeko					
Euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko					

5.- Balora itzazu:

	1	2	3	4	5
Erabilitako baliabide materialen egokitasuna					
Giza- baliabideen prestakuntza					
Antolamendu orokorra					

6.- Ekintzaren arduradunekin harremana izan baduzu, baloratu itzazu:					
	1	2	3	4	5
Haiengandik jasotako arreta					
Haien Eraginkortasuna					

7.- Balora ezazu	1	2	3	4	5
Zure ustez, Udalak ekintza honi egindako difusioa					
Nola izan zenuen ekintza honen berri?					
Irratiaren bidez	Egunkariaren bidez				
Telebistaren bidez	Inguruko baten bidez				
Kartelen bidez	Bandoaren bidez				
E-postaren bidez	Sare sozialen bidez (facebook, ...)				
Beste modu batez (adierazi ezazu zein)					

8.- Adieraz ezazu zein puntutaraino ados zauden hurrengo baieztapenekin, 1etik 5erako eskalaren bidez, 1 erabat desados eta 5 erabat ados bezala ulertzen ditugularik:					
Ekintza honi esker ...	1	2	3	4	5
Ekintzatik kanpo ere, euskara gehiago erabili dut					
Euskararekiko jarrera positiboagoa daukat					
Jende gehiagorekin aritzen naiz euskaraz					
Nire hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu ditut					
Euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen dut					
Azalpenik eman nahi al duzu?					

9.- Adierazi ezazu 1etik 5erako eskala batean, zein punturaino zauden ados hurrengo baieztapenekin, 1 erabat desados eta 5 erabat ados direla kontutan hartuta:					
	1	2	3	4	5
Ekintza honek nire igurikapenak bete ditu					
Aukera izango banu, berriro parte hartuko nuke					
Aurreko galderetan emandako erantzuna arrazoitu					
Gomendatu al diozu inguruko norbaiti?	Bai		Ez		
Zergatik?					
Balora ezazu 1etik 10era zure satisfazio orokorra					
Zerbait gehitu nahi al duzu?					

10.- Zer uste duzu aldatu edo hobetu beharko litzatekeela, ekintza edo zerbitzua hobetzeko?
11.- Zer da gehien gustatu zaizuna, edo hobekien baloratzen duzuna?
12.- Zerbait gehiago aipatu nahi al duzu?

D. ERANSKINA: ERAKUNDE ESKATZAILEEK AUTO- EBALUAZIOA EGITEKO PROPOSATUTAKO TRESNA

1.- Helburuen lorpena

Adierazi ezazue zeintzuk ziren bilatutako helburuak, bakoitzaren lorpena estimatzeko erabilitako indikatzaileak zehaztu, eta bakoitzaren lorpen-maila estimatu ezazue.

Helburu zehatzen lorpena zehaztu:	Indikatzaileak	Lorpen-maila
1.Helburu zehatza		
2.Helburu zehatza		
3.Helburu zehatza		
...		
Balorazioa justifikatu:		

2.- Eragileekin elkarlana

Adierazi ezazue zeintzuk diren euskara-planen edo ekintzen diseinu edota garapenean inplikaturako eragileak, eta bakoitzarekin egindako elkarlana zehaztu:

Inplikaturako eragileak	Lana edo ekintza	Azalpena
1.Eragilea:		
2.Eragilea:		
3.Eragilea:		
...		

3.- Ekintzen planifikazio estrategikoa

Garatu beharreko ekintzak era estrategikoan planifikatu eta garatu diren zehaztu ezazue:

Ekintzak	Ezaugarriak	Sekuentzia, data
1.Ekintza:		
2.Ekintza:		
3.Ekintza:		
...		

4.- Ekintzen parte-hartzaileen kuantifikazioa

Plan orokorrari dagokionez, eta garatutako ekintza zehatz bakoitzari dagokionez, parte-hartzaile potentzialen, espero diren parte-hartzaileen, eta lortutako parte-hartzaileen kopuruak zehaztu itzazue.

Plana/ekintza	Potentzialak	Espero zirenak	Lortutakoak
1.Plan orokorra			
1.Ekintza			
2.Ekintza			
3.Ekintza			
...			

5.- Plan eta ekintzen sozializazio edo difusioa

Onartutako planen edo burutu beharreko ekintzen difusioa egiteko bideak zehaztu:

Difusio edo sozializaziorako jarduerak	Azalpena
1.Jarduera:	
2.Jarduera:	
3.Jarduera:	
...	

6.- Emaizten sozializazio edo difusioa

Burututako ekintzen emaitzak ezagutzera emateko modua azaldu ezazue:

Difusio edo sozializaziorako jarduerak	Azalpena
1.Jarduera:	
2.Jarduera:	
3.Jarduera:	
...	

7.- Entitateen arteko elkarlana eta ekintzen sozializazioa

Beste udal edo entitateekin elkarlana egin bada, adierazi ezazue zeintzuekin egin den, eta burututako elkarlanaren azalpen txiki bat eman ezazue:

Elkarlana burututako udal edo entitateak	Azalpena
1.Entitatea:	
2.Entitatea:	
3.Entitatea:	
...	

Ekintzen sozializazioa egiteko topaketa edo jardunaldietan parte hartu baduzue, adierazi zeintzuetan izan den, eta azalpen txiki bat eman.

Topaketa edo jarduerak	Azalpena
1.	
2.	
3.	
...	

E. ERANSKINA: EKINTZETAKO PARTE- HARTZAILEEK EBALUAZIOA EGITEKO PROPOSATUTAKO TRESNA

Balora itzazu hurrengo alderdiak 1etik 5erako eskalaren bitartez, 1= oso desegokia eta 5 = oso egokiak direla kontutan izanik.

1.- Parte-hartzeari buruz

Parte hartu al duzu euskara-planaren edo ekintzen diseinu edo garapenean?			
Bai		Ez	
Azalpenik eman nahi al duzu?			

2.- Eragileen inplikazioari buruz

Balora itzazu:					
	1	2	3	4	5
Inplikaturako eragileen egokitasuna					
Inplikaturako eragileen aniztasuna					
Inplikaturako eragileen kopurua					
Azalpenik eman nahi al duzu?					

3.- Euskara-planari buruz

Balora itzazu:					
	1	2	3	4	5
Onartu edo garaturako planaren egokitasuna					
Onartu edo garaturako planaren helburuen egokitasuna					
Garaturako ekintzen egokitasuna					
Lortutako emaitzen egokitasuna					
Azalpenik eman nahi al duzu?					

4.- Plan eta ekintzen difusioari buruz

Balora itzazu:					
	1	2	3	4	5
Planari egindako difusioaren egokitasuna					
Planaren difusiorako erabilitako bideen egokitasuna					
Ekintzei egindako difusioaren egokitasuna					
Ekintzen difusiorako erabilitako bideen egokitasuna					
Azalpenik eman nahi al duzu?					

5.- Emaizten difusioari buruz

Balora itzazu:					
	1	2	3	4	5
Planen emaitzei egindako difusioa					
Ekintzen emaitzei egindako difusioa					
Azalpenik eman nahi al duzu?					

6.- Inpaktuari buruz

Adieraz ezazu zein puntutaraino ados zauden hurrengo baieztapenekin:					
Ekintza honek ...	1	2	3	4	5
Euskara gehiago erabiltzen lagundu dit					
Euskararekiko jarrera positiboagoa izaten lagundu dit					
Euskarazko harreman-sareak zabaltzen lagundu dit					
Hizkuntzaren ezagutza/trebetasunak hobetzen lagundu dit					
Euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen lagundu dit					
Azalpenik eman nahi al duzu?					

7.- Satisfazioaz

Adierazi ezazu zein punturaino zauden ados hurrengo baieztapenekin:					
	1	2	3	4	5
Pozik nago aurtengo euskara-planaren planteamenduarekin					
Pozik nago aurrera eramandako ekintzekin					
Pozik nago lortutako emaitzekin					
Ekintza honek nire igurikapenak bete ditu					
Aurreko galderetan emandako erantzuna arrazoitu					

8.- Azken balorazioa

Zer uste duzu aldatu beharko litzatekeela, euskara-plana hobetzeko, edo honen bidez lortutako emaitzak hobetzeko?

Zerk uste duzu eragin dituela emaitza positiboak?

Zerbait gehiago aipatu nahi al duzu?

BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 1982.eko abenduaren 16a, 160.alea, 3138.orrialdea.
- Agindua, 2010eko ekainaren 3koa, Kulturako sailburuarena, 2010ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2010eko ekainaren 4a, 105.alea.
- Ebazpena, 2010eko abenduaren 30ekoa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena, Toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatu edo Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planei dagozkien 2010eko diru-laguntzak esleitzen dituen. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2011eko martxoaren 7a, 45.alea.
- *XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berritu baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*. Euskararen aholku batzordea. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. Gasteiz, 2009.
- Calidad total: modelo EFQM de Excelencia. Euskalit- Fundación Vasca para la Excelencia, 2006.
- *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1999-2009)*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1999.
- *Hizkuntza Politikaren Etorkizuna (2005-2009)*. Eusko jaurlaritza. Gasteiz, 2005.
- Reboloso, E., Fernández-Ramírez, B., y Cantón, P. (2008). *Evaluación de Programas de Intervención Social*. Madrid: Síntesis.
- Zarraga, A. et al (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- www.euskalit.net